



ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK, HAUR ETA GAZTEEN 18. EKITALDIA

Zabaldu da **on line aukeratzeko** epea!

Otsailaren 28tik martxoaren 28ra margolan gustukoenak hautatu ahal izango dira

www.donostia.eus/gizaeskubideak webgunean.

Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 18. ekitaldi honetan, **herritarrek** aukera izango dute **Publikoaren Saria** erabakitzeko, epaimahai ofizialak aukeratutako margolanen artean hainbat kategoria eta modalitatetan. Parte hartzera gonbidatzen zaituztegu!

Ekitaldi honetan **2.000 parte-hartzaile** baino gehiago izan dira, eta 1.400 lan baino gehiago aurkeztu dira, bakarkako eta taldeko marrazkiak kontuan izanda. Aukeratzeko epea amaitu ondoren, webgune horretan bertan argitaratuko da irabazleen zerrenda, eta zuzenean jakinaraziko zaie bai irabazleei, bai parte hartu duten zentzoei.

Urtero bezala, 6 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteek parte hartu dute lehiaketan. Honako honetan, **ingurumen egokiaz gozatzeko eskubideaz eta hura gordetzeko betebeharrari** buruzko hausnarketa egin dute. Parte-hartzaileek gaia landu duten moduak askotariko alderdiak bildu ditu, gaur egun bizi dugun egoerari buruz ez ezik, eskubide hori ez izateak dakartzan ondorio latzei buruz ere hausnartu dute.

Parte hartzeko jarraibideak:

1. Sartu hemen: www.donostia.eus/gizaeskubideak
2. Webgunearen ezker aldean sakatu **“Margolanak aukeratu”** lotura eta handik nahi duzun kategoria eta modalitatea hautatu dezakezu. Margolan bat hautatzeko sakatu **“Aukeratu”** botoia.
3. Erabiltzaile berri gisa erregistratzeko orria zabalduko zaizu: bete ezazu inprimakia zure datu pertsonalekin eta ez zaitez ahaztu zein helbide elektroniko eta pasahitza jartzen duzun, datu horiek baitira parte hartzeko aukera emango dizutenak.
4. Minutu gutxiren buruan, mezu bat jasoko duzu erregistratu duzun helbide elektronikoan. Bertan azalduko den esteka sakatzen duzunean, kategoria eta modalitate bakoitzeko marrazki bana hautatu ahal izango duzu **“Aukeratu”** botoia sakatuta.

* Ez badituzu lanak saio bakarrean aukeratu nahi, ez dago arazorik, lotura horretan nahi adina aldiz sar zaitezke eta.

EPEA: Otsailaren 28tik martxoaren 28ra arte.



18 EDICIÓN INFANTIL Y JUVENIL DE ARTE Y DERECHOS HUMANOS

¡Comienza la **elección on line!**

Desde el 28 de febrero al 28 de marzo podrás elegir las obras en www.donostia.eus/gizaeskubideak

La **ciudadanía** tiene la oportunidad de elegir el **premio del público** entre las obras seleccionadas por el jurado oficial en cada categoría y modalidad de esta 18 edición Infantil y Juvenil de Arte y Derechos Humanos. ¡Os invitamos a participar!

Esta edición ha contado con más de **2000 participantes** y se han presentado más de 1400 obras entre dibujos individuales y grupales. Tras la finalización del plazo de elección, se publicará en la misma dirección web el listado de las obras premiadas y se comunicará también a todas las personas o centros implicados.

Un año más, niñas, niños y jóvenes de entre 6 y 18 años han participado en el certamen. En esta edición se ha reflexionado acerca del **derecho a disfrutar de un medio ambiente adecuado y al deber de conservarlo**. El modo que han trabajado el tema las personas participantes ha abarcado aspectos muy variados, reflexionando no solo sobre la situación en la que nos encontramos actualmente, sino también sobre las terribles consecuencias de carecer de dicho derecho.

Instrucciones para participar:

1. Entra en www.donostia.eus/gizaeskubideak
2. A través del enlace “**Elige dibujos**”, a la izquierda de la página web, puedes seleccionar la categoría y modalidad que quieras consultar. Para poder seleccionar una obra pincha en “elegir”.
3. Accederás a una página para registrarte como nuevo usuario; rellena el formulario con tus datos personales e incluye un correo electrónico y una contraseña que no deberás olvidar ya que estos datos son los que te permitirán participar.
4. En breve, recibirás un correo electrónico con un enlace donde debes entrar para poder participar. Cuando tengas claro las obras que más te gustan, selecciona una por cada categoría y modalidad, y pincha en “elegir”.

*Puedes entrar las veces que consideres en este enlace y no es indispensable realizar todas las elecciones en el mismo momento.

PLAZO: del 28 de febrero al 28 de marzo